AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Idatzizko proba honek **bi atal ditu, A eta B**; **biak** egin behar dituzu.

A atalean bi itzulpen-ariketa daude, eta testu bakoitzari hiru galdera dagozkio. **Bi multzoetako bat bakarrik** hautatu behar duzu: **A1 edo A2**.

B atalean bi aukera daude (B1 eta B2), eta bakoitzak hiru galdera ditu. **Bi multzoetako bat bakarrik** hautatu behar duzu: **B1 edo B2**.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea

A MULTZOA: Grekozko testuen hizkuntza-ezaugarriak identifikatzea eta azaltzea. Itzulpena eta lotutako galderak

(Atal honetan, bi itzulpen-ariketa daude, eta testu bakoitzari hiru galdera dagozkio. **Bi multzoetako bat bakarrik hautatu behar duzu: A1 edo A2**)

A1

Itzuli (hiztegiaz lagunduta) testu hau, eta erantzun lotutako galderei (itzulpena: 5 puntu).

Apolodoro, *Epitomea* 7.25

Odiseo eta Nausikaaren arteko topaketa (Nausikaa feaziarren erregearen alaba da) Homeroren Odisea*ko pasarterik ospetsuenetako bat da. Pasarteak, besteak beste, dena galdu ondoren beste leku batetik iristen den pertsonari egiten zaion abegikortasunaren gaia garatzen du.*

Kalipso utzi ondoren, Odiseoren itsasontzia hondoratu egiten da eta Odiseo feaziarren herrialdera iristen da. Han Nausikaak aurkitzen du, Altzinoo erregearen alabak; harrera egin eta laguntza eskaintzen dio.

Ναυσικάα, ἡ τοῦ βασιλέως θυγάτηρ Ἀλκινόου, πλύνουσα τὴν ἐσθῆτα αὐτὸν ἄγει πρὸς Ἀλκίνοον, ὃς αὐτὸν ξενίζει καὶ δῶρα δοὺς[1] μετὰ πομπῆς αὐτὸν εἰς τὴν πατρίδα ἐξέπεμψε[2].

A1 testuari lotutako galderak

1. Egizu esaldi honen analisi sintaktikoa: πλύνουσα τὴν ἐσθῆτα αὐτὸν ἄγει πρὸς Ἀλκίνοον, ὃς αὐτὸν ξενίζει. (1 puntu)

2. Egizu aditz honen analisi morfologikoa: ἐξέπεμψε. Joka ezazu aditz hori indikatiboko orainaldian, boz aktiboan. (0,5 puntu)

3. Egizu izen honen analisi morfologikoa: δῶρα. Deklina ezazu izen hori singularrean. (0,5 puntu)

A2

Itzuli (hiztegiaz lagunduta) testu hau, eta erantzun testuari dagozkion galderei (itzulpena: 5 puntu).

Lisias, *Eratostenesen heriotzaren defentsan* 1.6-7

Greziako oratoriak ezarri zituen oinarriak, entzulea konbentzitzeko helburuarekin diskurtsoa nola egituratu behar den eta zelan argudiatu behar den erakusteko. Greziako oratorian erabili ziren diskurtsoaren egituraketa eta argudioak indarrean daude gaur egun ere, eta ezinbestekoak dira edozein argudio-diskurtso osatzeko, hala eremu publikoan, nola esparru judizialean, edo arlo politikoan, eta are eskolan ere neurri batean.

Pasarte hau diskurtso judizial bateko narrazioaren hasieran kokatzen da, eta gertaerak azaltzea du helburu. Hitzaldi honetan, Eufiletok narrazioa bere ezkontzaren hasieran kokatzen du, Eratostenesek bere emaztea nola liluratu zuen azalduz.

Eufiletok azaltzen du nola izan ziren bere ezkontzaren lehen garaiak eta nola fidatu zen gero eta gehiago bere emazteaz.

ἐπειδὴ δέ μοι παιδίον γίγνεται, ἐπίστευον ἤδη καὶ πάντα τὰ ἐμαυτοῦ ἐκείνῃ παρέδωκα[3], ἡγούμενος ταύτην οἰκειότητα μεγίστην εἶναι: ἐν τῷ πρώτῳ χρόνῳ πασῶν ἦν βελτίστη.

---

[1] δίδωμι aditzaren aoristoko partizipio aktiboa; nominatibo singularra.
[2] ἐκπέμπω
[3] παραδίδωμι aditzaren indikatiboko aoristo aktiboa; singularreko 1. pertsona.

A2 testuari lotutako galderak

1. Egizu esaldi honen analisi sintaktikoa: πάντα τὰ ἐμαυτοῦ ἐκείνῃ παρέδωκα, ἡγούμενος ταύτην οἰκειότητα μεγίστην εἶναι. (1 puntu)

2. Egizu aditz honen analisi morfologikoa: ἐπίστευον. Joka ezazu aditz hori indikatiboko orainaldian, boz aktiboan. (0,5 puntu)

3. Egizu izen honen analisi morfologikoa: χρόνῳ. Deklina ezazu izen hori pluralean. (0,5 puntu)

B MULTZOA: Grekoaren ondare lexiko eta kulturala gure hizkuntzetan identifikatzea eta garatzea

(Atal honetan hiru galdera daude eta bakoitzak 1 puntu balio du. **Bi multzoetako bat bakarrik hautatu behar duzu: B1 edo B2**)

B1

1. Azaldu itzazu πατρίδα terminoaren esanahia eta etimologia. Aipatu termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak. (1 puntu)

2. Azaldu itzazu *Lanak eta Egunak* lanaren ezaugarri nagusiak haren egileari eta literatura-generoari dagokienez. (1 puntu)

3. Testu zati hau Aristofanesen *Lisístrata* obratik aterata dago (2007, L. M. Macía Apariciok gaztelaniara egindako itzulpena). Kokatu ezazu pasartea obra osoaren testuinguruan (obra osoa irakurri eta ulertu duzula frogatu behar duzu), eta azaldu itzazu obrako pertsonaia nagusiak. (1 puntu)

Lisístrata: ¿No echáis de menos a los padres de vuestros hijos, que están en campaña? Pues bien sé yo que los maridos de todas vosotras están fuera de casa.

Cleonica: El mío, ay de mí, lleva fuera de casa cinco meses: está en Tracia vigilando a Éucrates.

Mirrina: Pues el mío, ocho meses completos en Pilos.

EHU

Lampito: Y el mío, si alguna vez viene de su regimiento, volando agarra el escudo y se marcha como una exhalación.

Lisístrata: Ni siquiera de amantes ha quedado ni una chispa.

B2

1. Azaldu itzazu παιδίον terminoaren esanahia eta etimologia. Aipatu termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak. (1 puntu)

2. Azaldu itzazu Tuzididesen lanaren ezaugarri nagusiak haren literatura-generoari dagokionez (historiografia). (1 puntu)

3. Testu zati hau Sofoklesen *Edipo Erregea* obratik aterata dago (1981, A. Alamillok gaztelaniara egindako itzulpena). Kokatu ezazu pasartea obra osoaren testuinguruan (obra osoa irakurri eta ulertu duzula frogatu behar duzu), eta azaldu itzazu obrako pertsonaia nagusiak. (1 puntu)

Edipo: (...) como ahora he venido a ser un ciudadano entre ciudadanos, os diré a todos vosotros lo siguiente: aquel de vosotros que sepa por obra de quién murió Layo, el hijo de Lábdaco, le ordeno que me lo revele todo y, si siente temor, que aleje la acusación que pesa contra sí mismo, ya que ninguna otra pena sufrirá y saldrá sano y salvo del país. Si alguien, a su vez, conoce que el autor es otro de otra tierra, que no calle. Yo le concederé la recompensa a la que se añadirá mi gratitud. Si, por el contrario, calláis y alguno temiendo por un amigo o por sí mismo trata de rechazar esta orden, lo que haré con ellos debéis escucharme. Prohíbo que en este país, del que yo poseo el poder y el trono, alguien acoja y dirija la palabra a este hombre, quienquiera que sea (...). Mando que todos le expulsen, sabiendo que es una impureza para nosotros, según me lo acaba de revelar el oráculo pítico del dios.

INSTRUCCIONES PARA EL EXAMEN

Esta prueba escrita **tiene dos bloques, A y B**; debes hacer **los dos**.

En el bloque **A** hay dos ejercicios de traducción con tres preguntas asociadas a cada texto. Debes elegir **solo una de las opciones: A1 o A2**.